

noaue


**Mediku talde bat,
errausteak eragiten
dituen osasun
arazoez kezkatuta**

**Gure Esku Dago
taldeak bazkidetza
kanpaina abiarazi du**

**Milioi bat euro
inbertsioetan**

Irudimena eta umorea nagusi

Tapa eta aurkibideak prest



Agur esan diogu 2015 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2015eko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok azala eta aurkibidea doan jaso ditzakezue NOAUA!ko egoitzan.

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, Lizardin edota Lauroken egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.



NOAOA BIDAIAK

BIDAIA TZEN LAGUNTZEN DU



GREZIAKO IRLETARA KRUZEROA

IRTEERA: 2016ko irailaren 12an Lasartetik

ERRESERBAK ETA INFORMAZIOA

943 373 613

info@noaoabidaiaik.com

eskeintza gehiago www.noaoabidaiaik.com

HIPODROMO ETORBIDEA 10 · 20.160 LASARTE ORIA GIPUZKOA



Sagardotegi denboraldia

40 urte baino gehiago daramagu bazkariak eta afariak ematen usurbildar denei.



Iruin Sagardotegia eta Astiazaran Sagardoak Petritza bidea s/n 20170 zubietan auzoa Usurbil. Tel: 943-361-229
www.iruinsagardotegia.com www.astiazaransagardoak.com

Albisteak iruditan

Aginaga Sagardotegiak, 24 urte

Jendez betea ikustera ohituta gauden, baina oraingoan arrazoi berezi bat tarteko hurbildu zen hainbeste lagun; 24 urte bete berri baititu Aginaga Sagardotegiak. Otsaileko lehen ostiralean ospatu zuten urtemuga, Jon Ostolaza trikitilariak girotu zuen afari berezi bezain dastagarri baten bueltan.

Urtemugak berez bereziak badira, 2017koa are gehiago izango da; mende laurdena beteko baitu Aginaga Sagardotegiak. Zorionak!



Jon Ostolaza trikitilariak girotu zuen ostiraleko afaria.

Laburrean

1956koen kinto afaria
otsailaren 27an egingo dute

Otsailaren 27an bilduko dira, Antxeta jatetxean. Otodurako izen emateak zabalik segitzen du, otsailaren 22ra arte. Izen emateko deitu, bi telefono zenbakiotako batera: 656 308 212 (Iñaki). 943 362 555 (Mari Karmen).

Bihurri ludotekako
bazkidetzen ordainketa

Ordainketarako epea zabaldu dute, otsailaren 29ra arte. Bazkide berriek 30 euro eta jada bazkide direnek 10 euroko ordainketa egin beharko dute: Kutxabank 2095 5069 06 1063903578. Edozein zalantza argitu edo proposamenak egiteko, ludotekako tabloira jo dezakezue.

Herriko jaiak prestatzen
hasteko lehen bilera

Santixabeletako Jai Batzordeak festak antolatzen hasteko lehen bilerarako hitzordua finkatu du; otsailaren 22an, 18:00etan Potxoenean. Bilerara irekia da, norbanako nahiz eragileek parte har dezakete batzordean. Bilgune honetan erabaki ohi dira jai egunak, egitaraua...

noqua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 /// elkarte@noaua.eus /// www.noaua.eus

Jendaurrereko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkariako koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaua.eus

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Olatz Rezola, Ekhi

Arrieta.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,
Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbiet, Maddi Galbete,
Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon
Etzabe, Alazne Begiristain, Denis
Elortza, Pello Aranburu, Xabier
Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-
nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen
Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



Idolia Torregarai

Ama (ez hain) hasiberriaren balada

Eguneroko maitea, bada-
kit aspaldi honetan ez
dizudala kasu gehiegi-
rik egin. Baina egunerokota-
sunaren gurrpil zoroak idaz-
teko tarte handiegirik ez dit
uzten. Dagoeneko hankago-
rriak hazi dira, eta neska eta
mutil koxkor bilakatu. Nola
pasatzen den denbora! Hain
azkar eta hain bizi dena...

Dagoeneko papilla eta bo-
dien garaia atzean utzi dugu,
eta batzuetan (BATZUETAN
bakarrik) gau osoa lo egite-
ko aukera izaten dugu. Hori
abantaila handia da, izan ere,
urteak lo ondo egin gabe pa-
satzeak bere ondorioak ditu:
begi-zulo eternalak edo zom-
bie egoera, besteak beste.

Pasa den astea, adibidez,
eromen totala izan da. Oste-
gunean Santa Ageda bezpera,
ostiralean ikastolako inauteri
jaialdia eta larunbatean herri-
ko mozerro festa izan dugu.
Hori bai maratoia eta ez New
Yorkekoa.

Adibidez, Santa Ageda.
Lehenik eta behin baserritar
erropak non eta nola dau-
den ikusi behar izaten da,
izan ere, bidean beti galtzen
da zerbait: lepoko painelua
ez denean txapela, eta man-
tala ez denean, galtzerdiak.
Hori abarkak txikiak geratzen
ez zaizkienean. Hobeto es-
ateko: txikiegiak batentzat

eta handiegiak bestearentzat.
Total, mendiko botarekin joa-
ten dira, baserritar look orto-
doxorik gabe. Eta behin zati
guztiak aurkitzen dituzunean,
txukun jarri behar. Egia esan-
go dizut: niretzat baserritar
gona plantxatzea baino gauza
zailagorik ez dago! Beno bai,
baserritar gona eta baserritar
galtzak plantxatzea. Eta buruko
zapia... hor ere nahikoa lan
korapilo dotore bat egiteko!
Piratarena ateratzen zait gehie-
netan... Egia esan gero goza-
mena izaten da frontoian abes-
ten ikusten dituzunean. Beno,
ikusi ikusi ez ditut ikusten,
hainbeste jende dago eta! En-
tzutearekin konformatzen naiz,
eta koplaren bat abestera ere
bai. Gero amaitzean, zuregana
hurbiltzen dira, buruko zapia
okertuta, gerriko beltza as-
katuta eta kopetaldean maki-
lkada batekin. Egunean zehar
desmontatzen joan izan balira
bezala ematen du. Baina zein
harro eta pozik denok!

Edo ikastolako inauteri
jaialdia. Aste batzuk aurretik
jakiten dugu gurasook gela
bakoitza zertaz mozerrotuko
den. Eta garai horretan halako
antsietate bat sartzen zaizu:
izango al dugu etxean kamixeta
berde eta galtza horirik? Izan
ere, gaur egungo gurasook ko-
lore guztietako galtza eta ni-
kiak izan behar ditugu etxean,

ikastolako jai guztiei aurre egin
nahi baldin badiegu. Prestatu-
ta egon behar gara. Aurtengoa
erreza zirudien: txikia betiko
zakuarekin (eta beste urte bat
geratzen zaio, iupi!) eta alaba
untxi txuriz. Horrelakoetan ger-
tatzen den bezala, Murphyren
legea kunplitu zen, izan ere,
etxean ez genuen galtza txuririk
eta hortxe joan behar izan nuen
alabarekin dendara erostera...
merkealdiak hasi ziren egu-
nean! Eta ni enteratu gabe (esan
dizut zombie egoerarena lehen,
ezta?). Hori da jendetza eta
mundua dendan! Galtza pare
seguitan hartu eta ordu erdiko
ilara itxaron izan behar genuen.
Kutxara iristean bertako denda-
riak soilik galtza pare eroste-
gatik gaizki begiratzen zidala
iruditu zitzaidan (gainontzeko
guztiak Donostiko Orfeo osoa
janzteko adina arropa zerama-
ten), baina ez ikusiarena egin
nuen. Hurrengo pausoa, ikas-
tolatik untxiaren isatsa izango
zen ponpoia jostea zen. Eta hor
bai, josten nire nirvana parti-
kularra aurkitzen dut, izan ere,
nire amak niri mozerroak josten
zizkidanekoaz gogoratzen naiz
une horietan. Zenbat maitasun
eta zer nolako arte-lanak haiek!
Nik josi beharreko ponpoiak
ez zeukan halako lanik, baina
aizu, ipurtaldearen erdi erdian
jarri behar da, ez kendu meri-
turik! Azkenean, urtero bezala,

haur guztiek ikuskizun aparta
eskaini zuten (zorionak ikas-
tolari), eta beti bezala, mada-
lena bezala negar egin nuen
biak ikustean.

Eta bukatzeko, herriko i-
nauteriak. Aurten zertaz?
Galdera horrekin irekitzen da
izu eta egonezin garaia inau-
teri aurreko asteetan. Izan ere,
aitortu dezagun, persona bat-
tzuei disfrazatzea hauteskun-
de mahaiko presidente izatea
bezainbat gustatzen zaie. Zo-
rionez, beti izaten da koadrila
guztietan persona bat mo-
zorrotzea izugarri gustatzen
zaiona, eta are gehiago! ideiak
eta logistika lotzen dituenak.
Bedeinkatuak zuek, txinotako
peluka guztiak zuenak izango
baitira! Portaletik ateratze-
rako lotsak pasatuta, koadrila
biltzeko geratu den puntura
iristea oso garrantzitsua da,
taldearen parte sentitu eta
erridikulu sentimendua gain-
ditzeko. Gure txikiek prime-
ran pasa zuten eguna, batez
ere aita eta amaz deskoi... ba-
rre egiten. Hori bai, hurrengo
urteetarako gogoratu komu-
nera joateko mozerro errazak
pentsatzea, bestela... bestela
gaizki bukatzen da kontua.
Denentzat.

Beno, gaurkoz nahikoa da,
hainbeste idazteagatik eskuak
lo hartu dit eta. Lo... ze gauza
ederra den lo egitea!

Luis Aranalde | Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Nerea Zinkunegi | Maialen Unanue | **Idolia Torregarai** | Ilazki Gaintza

Foncalenteko espetxera martxa, otsailaren 20an

Ezker Abertzaleak deitu
duen "Abian" eztabaida
prozesuaren baitan, eta
euskal presoak euskal herrira-
tzea eskatzeko espetxe guztie-
tara martxak antolatu dituzte
otsailaren 20rako. Usurbilen,
Foncalenteko kartzelara; ber-

tan daude espetxeratuak, Olatz
Lasagabaster eta Patxi Uranga
herritarrak. Joan etorritako au-
tobus zerbitzua antolatu dute
eta izen ematea zabalik dago
jada:

■ Eguna: otsailak 20, larunbata.
■ Zehaztasunak: espetxe guz-

tietara martxak antolatu ditu
Ezker Abertzaleak. Usurbilen,
Foncalenteko espetxera martxa
antolatu da, bertan baitira bi
herritar; Olatz Lasagabaster eta
Patxi Uranga.

■ Abiatzeko hitzordua:
01:00etan Oiardo Kiroldegitik.

■ Itzulera: larunbat arratsal-
de-iluntze partean.

■ Izen ematea: Aitzaga taberna.

■ Oharra: bidaia laguntzeko 10
euroko bono-laguntzak daude
Aitzaga tabernan.

■ Antolatzailea: Ezker Abertza-
lea.

Hiru udal zerbitzu, esleipen prozesuan

Etxez etxeko zerbitzua

■ Zehaztasunak: etxez etxeko laguntza zerbitzua bi urtetarako, beste urte beteko bi epez luzagarria.

■ Oinarriak: otsailaren 1eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

■ Deialdira aurkezteko epea: 15 egun natural, otsailaren 1etik zenbatzen hasita.

Artzabalgo taberna

■ Zehaztasunak: Gure Pakea Elkartek Artzabalen duen egoitzako tabernaren kudeaketa kontratu esleipena 5 urtetarako, urtez urte 5 urtera arte luzagarria.

■ Oinarriak: otsailaren 2ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

■ Deialdira aurkezteko epea: 20 egun naturalekoa, otsailaren 2tik zenbatzen hasita.



Santueneko Gure Elkarteko tabernaren kudeaketa bi urterako esleitu da, beste urte beteko bi epez luzagarri.

Santueneko Gure Elkarteko taberna

■ Zehaztasunak: Santuenea 11n kokatua dagoen Gure Elkartea jubilatuen lokaleko taberna eta bertan dauden elementu eta instalazioen erabileraren eta zerbitzua esleitzeko prozedura irekia. Bi urte, beste urte beteko bi epez luzagarria.

■ Oinarriak: otsailaren 5eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

■ Deialdira aurkezteko epea: 20 egun naturaleko epea, otsailaren 5ean zenbatzen hasita.

Informazio gehiago:

Hiru deialdien inguruko agiriak eskuratu edota informazio gehiago jasotzeko udaletxean:

■ Jendaurreko ordutegia: astelehenetik ostiralera, 08:00-14:30.

■ 943 371 951

■ kontratazioa@usurbil.eus

■ usurbil.eus

Udal diru-laguntzak eskatzeko aukera

Usurbilgo Udalak kultur, kirol, gizarte ongizate, ingurumen eta nekazaritza zein abeltzaintza eremuetan ekimenak diruz laguntzeko deialdia abiatu du. Herri eragileek aurtengoan gauzatu nahi dituzten egitasmoetarako udal diru-laguntzak eskatzeko aukera izango dute otsailaren 29ra arte.

Tokiko Gobernu Batzarrak hilaren 1ean onartu zituen

diru-laguntzok. Gobernu taldeak berri eman digutenez, guztira 300.000 euroko partida erreserbatu du laguntzotarako 2016ko udal aurrekontuetan. Hain zuzen, herritarra eta herri bizitza jarri nahi izan dute aurrekontuon erdigunean. Herritarren eta herriaren ongizatea, zentzurik zabalenean ulertuta.

Nekazaritza-abeltzaintza eta ingurumeneko udal diru-laguntzak, 2015eko urtarri-

laren 1etik 2016ko otsailaren 5era arte gauzaturiko egitasmoentzako izango da. Diru-laguntzaren helburu, onuradun eta zenbatekoen inguruko argibide gehiago eta dokumentazioa eskuratzeko:

■ Otsailaren 5eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala.

■ Udal erregistroa: zabalik astelehenetik ostiralera, 08:00-14:30 artean.

■ 943 371 951/ usurbil.eus

'Busti Feminismoa'

ikastaroa, abiatzear

Parekidetasun Sailak antolatuko du ikastaroa eta Miren Aranguren eta Edurne Epeldek gidatuko dute. Osteagun honetan hasi eta apirilaren 28ra bitarte, ostegunero batuko dira Potxoenean.

■ Iraupena: guztira 20 orduko ikastaroa.

■ Egunak: otsailak 11, 18 eta 25, martxoak 3 eta 10, apirilak 7, 14, 21 eta 28 (ostegunak).

■ Ordutegia: 17:30-19:30.

■ Non: Potxoenean.

■ Dinamizatzaileak: Miren Aranguren eta Edurne Epelde (Emagin).

■ Izen ematea, doan. Usurbilgo Udaleko parekidetasun sailean.

■ Telefono zenbakia: 943 377 110.

■ E-posta helbidea:

parekidetasuna@usurbil.eus

■ Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

Iñaki Eizagirre,

sagardotegien

zozketan saritua

NOAUA!

Kultur

Elkarteko

bazkide za-

retenok pa-

gotxa ederra

duzue negu

honetan.



Azken zozketan, Iñaki Eizagirre Sagardiak 2 lagunentzako afaria irabazi du Iruin Sagardotegian. Zorionak Iñaki!

Zuen
publizitatea
hemen

☎ 943 360 321
publizitatea@noaua.eus

ARTZABAL

Baserria - Jatetxea

943 36 91 39
artzabaljatetxea.com

Parti

Paira 2022
jatetxea

· bazkariak EGUNERO
· afariak. asteazkenetik larunbatera

☎ 943 362725 · ☎ 688 690 361

Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO

“San Marko Mankomunitateko aurrekontuek ez dute epaitegiaren sententzia betetzen”



Usurbil, Hernani eta Astigarragako udal ordezkarien arabera, “PSEk eta PNVk entzungor jarraitzen dute”.

San Marko Mankomunitateak eskaini ez dizkien zerbitzuengatik ordaintzera behartu dituztela salatu dute azken urteotan hainbat udalek. Eta udalok hainbatean eskatu izan dute, jasotako zerbitzuen arabera ordaintzea. Eskaera berretsi zuten aurreko ostegunean, Usurbil, Hernani eta Oiartzungo alkateak. Oraingoan ordea, aldeko epaia eskutan zutela egin dute. “Epaitegiek erabaki dute eta arrazoa eman digute, zerbitzuaren araberako ordainketen alde egin genuen udaloi”, adierazi zuen Hernaniko alkate Luis Intxauspek, Usurbilgo eta Oiartzungo alkateekin batera udalerrri honetako udalbatza aretoan duela aste bate egin zuten agerraldian.

“Birziklatzeko ahalegin handiena egiten duten herritarrak kaltetzen ditu”

Orain, epaia betetzea eskatzen dute. “Sententzia hau aplikatzen hastea eskatu nahi dugu gaur, San Marko Mankomunitatea osatzen dugun herri guztiontzat onuragarriagoa izango delako”, alkateon esanetan. Gogorarazi zuten, “epai hau ez aplikatzeak San Markoko herri guztiak kalte-

“EPAIA BETE DADILA”

“Epaitegiek erabaki dute eta arrazoa eman digute, zerbitzuaren araberako ordainketen alde egin genuen udaloi”. Orain epaia betetzea eskatzen dute Hernani, Astigarraga eta Usurbilgo udal gobernuek

tzen ditu. Batetik, birziklatzeko ahalegin handiena egiten duten herritarrak kaltetzen ditu, baina baita orain arte zegokiena ordaindu ez duten herriak ere. Zenbat eta gehiago luzatu sententziaren aplikazioa, handiagoa izango da denon artean ordaindu beharreko zor hori, eta horrek Mankomunitateko beste herriak eta herritarrak kaltetzen ditu”.

Bidegabekeria

Horregatik, bidegabatzat jotzen duten egoera hau konpondu eta epaia betetzea eskatzen diete, San Markon agintean egon eta alkateon esanetan, “entzungor” segitzen duten EAJ eta PSE-ko ordezkariak. Salatu dutenez, “San Markoko Mankomunitateak onartutako

aurrekontuek ez dute epaitegiaren sententzia betetzen”.

177.000 euroko gainkostua ordaintzera behartuta

Jaso gabeko zerbitzuak ordaintzearen aurka agertu dira udalok, eta orain baita justizia ere. Udalok Mankomunitateko azken urteotako aurrekontuen aurka aurkeztu izan dituzten helegiteetatik dator aipaturiko epaia. Hala, gogorarazi zigutenez, San Marko Mankomunitateko 2014 eta 2015eko aurrekontuen aurkako errekursoak aurkeztu zituzten. 2014koari dagokionez, epaitegiek arrazoa eman diete. 2015eko helegitearen erantzunaren zain dira oraindik.

Bestalde, urtarilaren 26an onartu ziren 2016ko aurrekontuak ere errekurrituko dituztela iragarri dute Xabier Arregik, Luis Intxauspek eta Jexux Leonetek, Usurbil, Hernani eta Oiartzungo alkateek hurrenez hurren. Azken aurrekontuotan jasotzen ez dituzten zerbitzuengatik 177.000 euro ordaintzera behar nahi ditu San Marko Mankomunitateak, Usurbil, Hernani eta Oiartzungo Udalak.

Tarifen igoera, GHK-ko estatutuen aurkako erabakia

San Markok udalerritako herritarrek birziklatzeko egiten duten ahalegina saritu beharrean zigortu nahi dutela diote. Baita Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioak ere “eta horren adibide garbia da, onartu berri dituen tarifak. GHK-k Foru Aldundiarekin batera, erraustegia eraikitzearen itxitasuna oinarri, eraikitako zorra estaltzeko tasak igo egin ditu. Eta errefusaren tarifa ez ezik, organikoarena ere igo egin du, proportzio desberdinean gainera”.

Organikoaren tarifa igo dute

Kontsurtzioak hartutako erabakia, erakunde honen estatutuen aurka doala diote 3 alkateok. Estatutuek, gailu biltzaile saritzen dutela diote “baina erabaki honek kontra egiten du. Gutxiago sortu eta gehien birziklatzen dutenak zigortzen ditu. Gure galdera argia da: zer dela eta zigortzen dituzte, gutxien sortzen eta gehien birziklatzen dituzten herritarrak? Zergatik igo dituzue organikoaren tarifak? Beste behin ere erraustegiaren dizdirak itsututa. Birziklatzearen, ingurugiroaren, osasunaren, herritarren ongizatearen aurkako erabakia hartu dutenaren adierazgarri da GHK-k egin duen tarifaren igoera. Gure lehentasuna, alkateak garen heinean, gure udalerritako herritarren interesak defendatzea da. Gipuzkoako agintean daudenei ere dei egiten diegu gipuzkoarren interesak babestera”.

Erraustegiak eragiten dituen osasun arazoez ohartarazi du mediku talde batek

Gaur egun, “errausketaren alde dagoena osasunaren aurka dago”, nabarmendu zuen Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldeko kide diren mediku talde batek, aurreko astean Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean egin zuen agerraldian. Moratoria eskatu dute Zubietan eraiki asmo dagoen erraustegiarentzat, eta agintariek modu serioan balora ditzatela, hondakinak erraustu ordez, egon daitezkeen alternatibak.

“Irtenbide osasuntsuenen alde egiteko unea da. Garaiz gaude gure hondakinaren kudeaketa arduratsu bat egiteko. Hauen errausketak ingurumenean, gudan, gure seme-alaba eta hauen ondorengoetan sor ditzakeen eraginak ekidituz”, taldearen esanetan.

2004. urteaz geroztik hondakinak erraustearen inguruan egin diren ikerketak aztertzen dabil aipatu taldea. Taldeko kide Jose Luis Paulinek, Jose Cruz Villandiegok, Marta Barandiaranek, Maialen Berridik eta Xabier Mixelenak egin zu-



Medikuen esanetan, “garaiz gaude gure hondakinaren kudeaketa arduratsu bat egiteko”.

IKERKETEK DIOTENEZ

“Erraustegiaren kokagunetik 10 kilometroko erradioan, gaixotasunak areagotu egiten direla diote; leuzemia kasuak %21 areagotzen direla, pleura minbizi kasuak %84 eta behazuneko minbizi kasuak %24”

ten agerraldian, hainbat datu kezkarri plazaratu zituzten. Kezkarriena, erraustegiek areagotu egiten dituztela gaixotasunak eta gaixotasunak eragindako heriotzak.

Dioxinak, eta beste

Urte luzez aztertu dituzten ikerketetan oinarrituta, erraustegiaren kokagunetik 10 kilometroko erradioan, gaixotasunak areagotu egiten direla diote; leuzemia kasuak %21

areagotzen direla, pleura minbizi kasuak %84 eta behazuneko minbizi kasuak %24.

Errauste plantak airera beruna, dioxinak, aerosol eta dioxido karbono gasak isurtzen dituztela gogorarazten dute, baina baita ezagutzen ez diren beste hainbat gai ere. Eta erraustegiak sortutako errausak tratatuta ere, arrisku handiko produktuak izaten segitzen dutela nabarmendu zuten.

Otsailaren 28an, errausketaren aurkako martxa

Otsailaren 28an herritar zutabe bana abiatuko da errauste plantaren kokagunea inguratzen duten udalerrietatik, azpiegitura eraiki nahi duten “zero puntura”.

Besteak beste, goizeko

11:00etan Usurbil eta Zubietako frontoietatik. 12:00etan zero puntuan elkartuko dira zutabe guztiak eta gero, martxaren helmugara, Zubietako frontoira abiatuko dira denak batera. Errausketaren Aurkako Mugi-

menduak antolatu du hitzordua.

Ostiral honetan, bilera irekia Potxoenean

Erraustegia Erabakia taldeak bilera irekia deitu ostiral honetan

rako: otsailak 12 ostirala, arratsaldeko 18:00etan Potxoenean, “eragile eta herritar guztiei irekia, otsailaren 28an Zubietako Letabide gainera egingo den Erraustegiaren Aurkako Martxa prestatzeko”.

www.noaueus

USURBILGO ATARIA

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Gure Esku Dago taldeak bazkidetza kanpaina abiarazi du

Udazkenean egin zuen Eskura hausnarketa prozesuaren ondorioetako bat da, Gure Esku Dagok abiatu duen bazkidetza kanpaina. “Gure Esku Dagon bazkidearen figura erabiliko dugu, dinamika herritar gisa dago-kigun barne funtzionamendu demokratikoan sakontzeko helburuarekin, herritarren zuzen-zuzeneko partehartzea baloratu eta bide emateko”, Gure Esku Dagoren esanetan.

Bazkidetzak ze betebeharrak izango dituen argitu dute:

■ Dinamikako bazkideak eskubidea izango da dinamika-aren ekimen guztietan nahieran parte hartzeaz gain, erabakietan eztabaidan parte hartu ez ezik, botoa emateko.

■ Dinamikako bazkideak dinamika ekonomikoki sostengatzeko konpromisoa hartuko du, betiere bere aukeren arabera hautatutako kuotari esker.

Erabakiaren aroa

Bazkidetza kanpainan parte hartzeko deia luzatu du Gure Esku Dagok. “Erabakiaren aroa abiatu dugu, erabakitzea goaz. Eta hortaz, beti bezala, baina inoiz baino gehiago, herritarrok behar dugu izan protagonista. Beraz, orain artean dinamikan modu batera edo bestera parte hartu duten herritar guztiei dei egiten diegu bazkidetzeko. Atzerabuelarik



Bazkide egiten denak, erabakietan bozka emateko aukera izango du. Horretaz gain, elkarte ekonomikoki sostengatuko du berak hautatutako kuota batekin.

IGANDEAN, FRONTOIAN

“Bazkidetza osatzeko, mahaia ipiniko dugu igandean frontoi inguruan. Bestela, gureeskudago.eus atarian sartuta ere tramitatu dezakezue bazkidetza”

ez daukan fase honetan, guztiok garelako beharrezkoak, eta elkarrekin iritsi nahi dugulako erabakira”, adierazi dute.

Bazkidetza kanpaina Usurbila dator orain. Udalerrri honetako Gure Esku Dagoren lan taldeak mahaia aterako du kalera datozen asteotan. Bestela, gureeskudago.eus atarian sartuta ere tramitatu dezakezue bazkidetza.

Galdeketa, 2017an

Datorren urterako herri galdeketa iragarri du Gure Esku Dagok, Usurbilen. “2018a bitartean ahalik eta herri gehienetan herri galdeketa antolatu eta gauzatzea da Gure Esku Dago-ren asmoa. Herriko

taldeak ere 2017an herri galdeketa antolatzeko asmoa dugu, baina horretarako 2016an azken bultzada bat eman nahi diogu gizarteratze prozesuari, eta orain arte hurbildu ez zai-gun jendearengana iritsi nahi dugu”, iragarri zuen Usurbilgo Gure Esku Dagok, duela astebeteko aldiizkarira helarazi ziguten idatzian. Eta ondoren, deialdi honek oihartzun zabala izan du beste hedabideetan. Lehenago, aurten, Goierriko 22 udalerrietan, Diman edota Ispasterren ospatuko dira herri galdeketa. Ekainerako ere ekitaldi masiboa deitu dute Bilbon, ibaiaren bueltan. Usurbilen, urte honetan zehar, gizarteratze prozesuari azken bultzada eman nahi dio Gure Esku Dagok.

Bazkidetza egiteko mahaian frontoian

■ Otsailak 14 igandea, 12:00-14:00 Bazkidetza egiteko mahaia frontoi inguruan. Mahaia jarriko duten hurrengo egunak: otsailak 26, martxoak 4 eta 11.

Martxoaren 11n, “Borondateen kriseiluak”

Segurtasun arrazoiengatik, abenduaren 31n bertan behera utzi zuten “Borondateen kriseiluak” ekitaldia. Aldaketarik ez bada, martxoaren 11n ospatuko du Gure Esku Dagok. “Ilunabarrean elkartuta, desio bana eskatu, kriseiluan idatzi, eta zerura jaurtitzeko deia luzatzen dizuegu herritarroei”. Kriseilurik ez baduzue, Lizardi liburu dendan dituzue salgai, 2,5 eurotan.

■ Kriseiluak salgai dituzue 2,5 eurotan, Lizardi liburu dendan.

Igandean Sutegin, “La sonrisa de Mona Lisa” filma

Matrakak Usurbilgo Talde Feministak antolatu du proiektzioa. Igande honetan, Sutegin, iluntzeko 19:00etatik aurrera.

1953. urtean girotua dago eta Katherine Watson Wellesleyko Unibertsitatara doa, Artearen Historia irakastera. Gerraostea da, Katherinek bere ikasleek emantzipatzeko eskura dituzten aukerak baliatzea espero du. Baina unibertsitate prestigiotsura heldu berrian, unibertsitatea tradizioari eta konformismoari oso lotua dagoela jabetuko da.

ARTZABAL
Baserria - Jatetxea

943 36 91 39
artzabaljatetxea.com

EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

ANTXETA
taberna-jatetxea

eguneko menuak
ogitartekoak
plater konbinatuak

Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

Otar-Goxo
Elizagaia

Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

Santa Ageda bezpera degu...



Inauteri Jaia, ikastetxeetan



Inauteri Jaia, Zubietatik Lasarte-Oriara









Herritarrek bidalitako irudiak daude argazki hauen artean. Irudi gehiago topatuko dituzue noaia.eus web orriko Argazkitegian.

Usurbilgo bost talde, Gazte Danbada parte hartzeko hautagaien artean

Martxoaren 25etik 28ra, Aitzina eta Ernai gazte erakundeek Gazte Danbada antolatu dute Laudion, "Esna harrapa zaitzala" aldarripean. Hainbat berrikuntze-kin oraingoan; tartean, musika sortzaile gazteen parte hartzea sustatu nahi dute. Horretarako, "Oholtza gainean bakerik ez" ekimena abiatu dute.

Gazte Danbada kontzertuak eskaini nahi dituzten musika taldeak aurkeztu daitezke egitasmo honetara. Bozketa sistema baliatuz, lehia modukoa planteatu dute. Babes gehien jasotzen duten taldeek izango dute martxo amaieran, Laudioko Gazte Danbada parte hartzeko aukera. Bozketara aurkeztu direnen artean, Usurbilgo bost musika talde ditugu; Odolaren Mintzoa, Izeberg, Hotzikara, Floxbin eta Kezka. Taldeon aldeko bozka emateko sartu atari honetan: bozkatu.topatu.eus

Otsailaren 18an emango dute ezagutzera antolatzaileek, Gazte Danbadako behin betiko egitaraua; eta honenbestez baita, ber-



Odolaren Mintzoa, Izeberg, Hotzikara, Floxbin eta Kezka taldeak bozkatzeko aukera dago bozkatu.topatu.eus atarian.

tan parte hartuko duten musika taldeen zerrenda.

Autobus zerbitzua igandean, Urdiñarbeko maskaradetara

Usurbilgo Orbeldi Dantza Taldeak igandean Zuberoako Urdiñarben ospatuko diren maskaradetara joateko autobus zerbitzua antolatzen ari dira. Izena aurrez eman behar da. Hauxe lotu duten plana:

■ Otsailak 14 igandea, 08:30ean Oiardo Kiroldegitik autobusez abiatu. 11:00etan, goizeko ekitaldia ikusi. Eguerdian, bazkaria norberak eramanda. 17:00etan arratsaldeko saioa

ikusitako 19:00-19:30ak aldera, Usurbilera bueltatu.

■ Autobus zerbitzuan izen emateko: 688 851 886 (Ugaitz) edo.orbeldi.udt@gmail.com

■ Prezioa: 15 euro.

Futbol partidak

Otsailak 13, larunbata

09:15 Benjaminak, lagun artekoa: LH3.

10:00 Benjaminak, lagun artekoa: LH4.

11:15 Infantil neskak:

Usurbil F.T.-Hernani C.D. "A"

16:00 Jubenilak:


Usurbil F.T.-Billabona K.E.

Otsailak 14, igandea

11:00 Alebin federatua:

lagun arteko neurketa.

Igeriketa taldea, saritua



Berriki, "Legazpian, Gipuzkoako Eskolarteko saria ospatu zen, bertan bi igerilari usurbildarrek parte hartu zuten, Aimarrek eta Alaznek, altxor bikaina lortuz. Lau froga ezberdinetatik hiru domina jaso zituzten; bi urrezko eta zilarrezko bat. Zorionak!", helarazi nahi dizkiete igeriketa taldeak.

Eskubaloitako partidak

Otsailak 13, larunbata

■ 10:00 Alebin mutilak,

Buruntzaldea:

Udarregi 6A-Udarregi 6C.

■ 11:15 Jubenil neskak, Euskal

Liga:

Usurbil K.E.-Atl.Basauri.

■ 12:45 Infantil mutilak, Gipuzkoako Txapelketa:

Udarregi A Usurbil-

Udarregi B Usurbil.

Otsailak 14, igandea

■ 10:00 Kadete neskak, Euskal

Liga:

Usurbil KE A-Aiala Zarautz.

■ 11:15 Kadete neskak, Gipuzkoako selekzioa: prestakuntza

saioa. Deitu dituzten jokalarien artean, Usurbil K.E.-ko

Nahia Marcos Huici.

Pilota partidak

Otsailak 12 ostirala

Arratsaldeko 19:00etan

Aginagako frontoian

EHko Txapelketa

Eskuz banaka nagusiak:

PAGAZPE-ERREKA (Doneztebe)

(Ander Quina).

Udaberri

Txapelketa

Pala goma 2. maila:

PAGAZPE-Azkoitia 1

(Xabier Murua-Josu Arruti).

Pala goma 1. maila:

PAGAZPE 1-Real Sociedad

(Aitor Matxain-Jon Olaizola).

Lurraldebusek otsailaren 20an kenduko du

Amarako geltokia

Donostiako autobus geltoki berria zabaldua, otsailaren 20an kenduko dute Amarako geltokia. Aurrerantzean Usurbildik Donostiara doan Antiguotik barrena hiriburu erdiguneraino baino ezingo du joan autobusez. "Ez dute geraldirik egingo Pio XII.an. Antiguatik sartuko dira eta San Martin 25 geredetik Askatasunaren Hiribideko 24ko geredikura joango dira zuzenean", iragarri dutenez.

Beraz, Usurbildik Donostiara autobusez zoaztenontzat, San Martin kalean (erdigunean) izango duzue autobusetik jaisteko azken aukera. Eta Donostiatik Usurbila itzultzeko lehenengo geltokia berriz, Askatasunaren Hiribidean kokatua dagoena izango da. Autobusa ez da Amarara sartuko.

■ Informazio gehiago:

943 415 208

gfa_garraio_idazk@gipuzkoa.eus

Eskubaloia, selekzioa

Otsailak 14 igandea

■ 09:45 Infantil mutilen entrenamendu saioa, Orioko Karela Kiroldegian: Usurbil K.E.tik Julen Lejardi, Manex Irazabal, Jon Mikel Elexpe, Eneko Furundarena, Xabi Olazabal, Amets Uburruza eta Harri Bruño jokalaririk deitu dituzte hitzordura.

Epele-Ugalde irteera igandean

Andatza M.K.T.-k igande honetarako antolaturiko irteerarako izen ematea asteartean itxi zuten. Apuntatu direnek, igande goizeko 8:00etarako gerturatu beharko dute Oiardo Kiroldegira. 14 kilometroko bidea osatuko dute.

Herritarrak eta herri bizitza, udal aurrekontuen ardatz nagusiak

Epe barruan erreklamazioz inork aurkeztu ez eta behin betiko onartu ditu Usurbilgo Udalak 2016. urterako aurrekontuak. Udale-ri honek 10.705.129 euro ditu guztira, aurtengo gastuei aurre egin eta gauzatu nahi dituen egitasmoetarako. Hamaika milioi eurotara gerturatzen diren aurrekontuon eraginkortasuna bultzatu du gobernu taldeak, murriztaileak ez izateko. Hala, inbertsioetarako eta diru-laguntzetarako partidei eutsi nahi izan diete, baita Udalak zerbitzu publikoen alde egin ohi duen apustuari ere.

Herritarra eta herri bizitza jarri nahi izan dute aurrekontuon erdigunean. “Usurbildarrak hobeto bizitzea” dute helburu, gobernu taldearen esanetan. Honatx aurtengo aurrekontuak aurkeztetik behin betiko onar-



Irazu kalearen berritze-lanak egiteko 205.000 euro aurreikusi dira.

tzeraino egin duten bidea:

■ 2015eko abendu hasiera: gobernu taldeak zirriborroa aurkeztu zien udal taldeei Ogasun Batzordean.

■ Abenduak 1-16: arlokako bilera erronda eragileekin. Aurrekontu eta legealdiari begirako eragileen 23 bat ekarpen jaso zituzten.

■ Abenduak 23: hasieraz onartu ziren udal aurrekontuak, ezohiko osoko bilkuran.

■ Urtarrilak 27: erreklamaziorik ez eta, automatikoki behin betiko onartu ziren udal aurrekontuak.

Gorakada txikia

Azken urteotako kopuruen

bueltan daude, 2016ko udal aurrekontuak. 2013tik hona, pixkanaka goranzko joera nabari da, baina zer ikusirik ez 2011ko datuekin. 2005eko kopuruetatik gertuago gaude egun. Baina ordutik, nabaria den moduan, zerbitzuak ugaritu dira Usurbilen. Diru kopurua ez hainbeste. Honenbestez eraginkortasuna bilatu behar izan dute aurtengo aurrekontuetan. Azken hamar-kadako udal aurrekontuen zenbatekoak dituzue segidan:

- 2005: 10.697.519
- 2006: 10.448.983
- 2007: 10.200.452
- 2008: 12.925.163
- 2009: 13.200.000
- 2010: 13.042.840
- 2011: 13.903.890
- 2012: 10.982.729
- 2013: 10.033.478
- 2014: 10.360.521
- 2015: 10.482.470
- 2016: 10.705.129

Udal aurrekontuak 2016: gastuen banaketa

Udal aurrekontuen herena, pertsonalgo gastuei aurre egitera bideratuko du Usurbilgo Udalak. Aurrekontuen ia %29a zerbitzuetara. Diru kopuru handienak jasoko dituzten partidak ditugu. Modu honetan berretsi nahi dute beste behin, langile eta zerbitzu publikoen aldeko defentsa. “Garbi dugu, zerbitzu publikoak eta zuzeneko kudeaketak ekartzen dituen onurak; herritarrei begirako zerbitzu zuzena, langileen inplikazioa ere zuzenagoa da eta herritarrekin harremanak sendotzea dakar”,

